

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

23

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 9koa, Kulturako sailburuordearena, 2024an Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako artxibo-funtsekin eta dokumentu-ondarearekin lotutako ikerketa-proiektuetarako beka emateko.

Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko uztailaren 19ko Aginduaren bidez, oinarriak ezarri ziren Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako artxibo-funtsekin eta dokumentu-ondarearekin lotutako ikerketa-proiektuetarako beka emateko, eta 2024an lau beka emateko deialdia onartu zen (aurrerantzean, agindu arautzailea).

2024ko azaroaren 21ean, Kultura Ondarearen zuzendariak ebazpen-proposamena egin zuen, kontuan hartuta agindu horretan xedatutako balorazio-irizpideak eta jasotako eskabideak baloratzeko eraturako balorazio-batzordeak egindako aktaren edukia.

Azaldutakoa kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei zehazten diren beka ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei beka-eskabideak ezestea.

Hirugarrena.– Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorrak ere.

Laugarrena.– Beka jaso dezaketen proiektuek 12 hilabeteko iraupena izango dute gehienez, eta amaiera epea gehienez 2025eko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Bosgarrena.– Beka honela ordainduko da, hura arautzen duen Aginduaren 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

a) Lehenengo, zenbateko osoaren % 50a, beka onartzen den unean, betiere berariaz uko egin ez bazaio.

b) Beste % 50a ikerketa-lana entregatu ondoren ordainduko da, ikerlanaren azken emaitzaren jarraipenaz arduratzen den pertsonak lana onartu ondoren.

Seigarrena.- Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jakinarazteko eta jende guztiak horren berri izan dezan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 9a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2025eko urtarrilaren 3a, ostirala

I. ERANSKINA

EMANDAKO BEKAK

| Esp. kod. | Eskatzailea | Proiektuaren izenburua | Emandako puntuazioa | Bekaren diru-kopurua (eurotan) | Lehen ordainketa (2024) (eurotan) | Bigarren ordainketa (2025) (eurotan) |
|-------------------|--------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------------------|-----------------------------------|--------------------------------------|
| 003-ADI-2024 | Apraiz Sahagun, Amaya | ¡Mujeres, a sus puestos de trabajo!. Iconografía y representación de las trabajadoras de la industria vasca en los Fondos Fotográficos del Archivo Histórico de Euskadi | 70 | 10.000 | 5.000 | 5.000 |
| 007-ADI-2024 | Aristondo Merino, Ilargi | Gipuzkoako Mendietako Paisaia Naturokulturalaren Kudeaketa Historikoaren Azterketa | 64 | 10.000 | 5.000 | 5.000 |
| 002-ADI-2024 | Madueño Vivar, Eneko | Relaciones políticas, diplomáticas y culturales entre el País Vasco e Italia (1920-1950) a través del Patrimonio Documental conservado en el Archivo Histórico de Euskadi | 51 | 10.000 | 5.000 | 5.000 |
| 004-ADI-2024 | Peña Ramos, Jon | Una biografía del III.er Marqués de Valdespina | 58 | 10.000 | 5.000 | 5.000 |
| Guztira emandakoa | | | | 40.000 | 20.000 | 20.000 |

2025eko urtarrilaren 3a, ostirala

II. ERANSKINA
EZETSITAKO ESKAERAK

| Esp. Kod. | Eskatzailea | Proiektuaren izenburua | Emandako puntuazioa | Arrazoia |
|--------------|---------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|----------|
| 006-ADI-2024 | Fradua Ruiz De Olaso, Ane | Donazioetatik, herentzietatik eta/edo oparrietatik datozen Eusko Jaurlaritzaren ondasun eta objektuen Inbentario proposamena | 37 | (1) |
| 001-ADI-2024 | Rojo Bueno, Ander | Los vascos en los campos de concentración: represión y muerte en los campos de concertación de Cantabria (Laredo, Santoña y Castro-Urdiales). | 13 | (1) |
| 005-ADI-2024 | Sanchez Labaka, Aintzane | Las mujeres en la documentación del Archivo Histórico de Euskadi (c. 1450-1600). | 43 | (1) |

(1) Lortutako puntuazioa ez da iritsi agindu arautzailean BEKA jasotzeko eskubidea izateko ezarritako gutxienera (Agindu arautzailearen 8.2 artikulua).